

MUSEO DE NAVARRA  
NAFARROAKO MUSEOA  
TODO EL ARTE ES CONTEMPORÁNEO  
ARTE ORO GARAIKIDEA DA

SALA 4.2  
4.2 ARETOA

# ESTO QUE VEO, AQUELLO QUE FUE IKUSTEN DUDAN HORI, HURA IZAN ZENA



EXPOSICIÓN  
ERAKUSKETA

22 OCTUBRE 2020 – 12 OCTUBRE 2021  
2020KO URRIAREN 22A – 2021EKO URRIAREN 12A

ORGANIZACIÓN Y PRODUCCIÓN /  
ANTOLAKETA ETA EKOIZPENA

Museo de Navarra /  
Nafarroako Museoa

COMISARIO / KOMISARIOA

Luis Garbayo Erviti

COORDINACIÓN / KOORDINAZIOA

Carmen Valdés Sagüés

ENMARCACIÓN / MARKOAK IPINTZEA

Dokuzain

MONTAJE / MUNTAKETA

Moreno Vallés, TransportaArte

ILUMINACIÓN / ARGIZTAPENA

Félix Mendía Villanueva

DISEÑO GRÁFICO / DISEINU GRAFIKOA

Ken

PRODUCCIÓN GRÁFICA / EKOIZPEN GRAFIKOA

La Cartelería

TEXTOS / TESTUAK

Luis Garbayo

FOTOGRAFÍAS / ARGAZKIAK

Julio Altadill

Nicolás Ardanaz

José Galle

Pedro María Irurzun

Gerardo Zaragüeta

COPIAS FOTOGRÁFICAS / ARGAZKIEN KOPIAK

AC Imagen, Carlos Cánovas

TRADUCCIÓN / ITZULPENA

Sección de Traducción  
del Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernuako  
Itzulpen Atala

EDICIÓN / EDIZIOA

Gobierno de Navarra. Departamento  
de Cultura y Deporte  
Nafarroako Gobernua. Kultura eta  
Kirol Departamentua

© DE LA PRESENTE EDICIÓN /  
ARGITALPEN HONENA

Gobierno de Navarra, Pamplona  
Nafarroako Gobernua, Iruña  
2020

© DE LOS TEXTOS / TESTUENAK

su autor / egilea

© DE LAS FOTOGRAFÍAS / ARGAZKIAK

Museo de Navarra /  
Nafarroako Museoa  
Archivo General de Navarra /  
Nafarroako Artxibo Orokorra

IMPRESIÓN / IMPRIMAKETA

— — — —

D.L. / L.G.

NA - XXXXX - 2020

PORTADA / AZALA

Una boda rural / Herri txiki bateko ezkontza  
Gerardo Zaragüeta, 1930

LAS IMÁGENES EXPUUESTAS SON COPIAS ACTUALES OBTENIDAS A PARTIR DE LOS NEGATIVOS, DE DIFERENTES TIPOS.  
REALIZADOS POR LOS RESPECTIVOS FOTÓGRAFOS EN SU MOMENTO / MUSIAI DAUDEN IRUDIAK GAUR EGINDAKO  
KOPIAK DIRA, ARGAZKILARIEK BERE GARAIAN EGINDAKO MOTA DESBERDINETAKO NEGATIBOETATIK LORTUTAKOAK.

# ESTO QUE VEO, AQUELLO QUE FUE IKUSTEN DUDAN HORI, HURA IZAN ZENA

UNA VISITA AL ARCHIVO  
FOTOGRAFICO DEL MUSEO  
DE NAVARRA

BISITALDI BAT NAFARROAKO  
MUSEOKO ARGAZKI-  
ARTXIBOAN BARNA

DE NAVARRA **MUSEO** NAFARROAKO

«Todas las fotografías —no solo las llamadas “documentales”, porque toda fotografía es en realidad documental y pertenece a algún lugar, ocupa un sitio en la Historia— pueden ser enriquecidas con palabras.

Argazki guztiak —ez “dokumentalak” deiturikoak soilik, zeren, egia esan, argazki oro dokumentala da, tokiren batekoa da, leku bat hartzen du Historian— hitzen bidez aberasten ahal dira.»

Dorothea Lange (1936)

Escribía Susan Sontag que las fotografías, por sí solas, son incapaces de explicar nada. Al mirar muchas de las fotos de la colección del Museo de Navarra uno tiene esa impresión: la de moverse en un mundo de sombras, un mundo que mueve a la nostalgia de un tiempo ido, habitado por personas desconocidas, que ya no son, que ya no están. ¿Qué papel jugaron esas personas, por qué fueron fotografiadas, qué hacían allí en ese momento? Difícil saberlo, aunque no imposible. La imagen fotográfica, dice Sontag, es una invitación a la deducción, a la especulación, a la fantasía.

En este mismo sentido, John Berger afirmaba que la fotografía es irrefutable en tanto que evidencia, pero débil en significado. De tal forma que cobra significación mediante las palabras: unidas las dos, fotografía y texto, las fotografías se vuelven poderosas, es como si la pregunta que formulan hubiese sido contestada.

Con este criterio, se investigan en esta muestra algunas fotos del archivo del Museo hasta dar con los datos que han permitido escribir unos «pies de foto» capaces de contestar a la pregunta que silenciosamente nos están haciendo. Ese ha sido uno de los *leit motifs* de esta muestra: darles a las fotos un sentido, saltar el abismo que separa aquel momento en que fueron «sacadas» y este momento en que las miramos; o, dicho de otro modo, fijar la memoria de aquel tiempo y «revelar» a sus protagonistas, sin perder de vista que la fotografía no restituye lo abolido —por el tiempo, por la distancia—, pero es testimonio de que «lo que veo ha sido», como lo expresó Roland Barthes.

Susan Sontag—ek idatzi zuen argazkiak, berez, ez direla gai deus ere azaltzeko. Nafarroako Museoko bildumako argazki aunitzi begiratzean, irudipen hori dugu: itzalen mundu batean gabiltzala, denbora joanaren mina eragiten digun mundu batean, non ezezagunak bizi diren, jada ez direnak, jada ez daudenak. Zer betekizun izan zuen jende horrek, zergatik egin zitzairen argazkia, zertan ari ziren han une hartan? Zaila da jakitea, baina ez ezinezkoa. Irudi fotografikoa, dio Sontagek, dedukziorako gonbita da, espekulaziorako gonbita.

Illo beretik, John Berger—ek zioen argazkia ukaezina dela ebidentzia den heinean, baina esanahiz eskasa dela. Hortaz, hitzen bidez hartzen du esanahia: biak baturik, argazkia eta testua, argazkiak ahaltsu bihurtzen dira, egiten duten galderari erantzun izan balitzaio bezala.

Irizpide hori baliatuz, Museoko artxiboko argazki batzuk ikertu dira erakusketa honetan, harik eta behar diren datuak aurkitu arte eta, hala, «argazki—oinak» idatzi ahal izateko, argazkiek isilik egiten diguten galderari erantzun beharrez. Hori izan da erakusketa honetako leit motibetako bat: argazkiei zentzu bat ematea, jauzi egitea argazkiak atera ziren une hura eta haiei begira gauden une hau bereizten dituen amildegiaren ginetik; edo, bestela esanda, garai hartako oroimena finkatzea eta protagonistak «errebelatzea», ahantzi gabe argazkiak ez duela —denboraren, distantziaren poderioz— deusezturikoa berrezartzen, baina «ikusten dudana hau izan dela» erakusten duen lekukoa dela, Roland Barthesek adierazi bezala.

Aunque no siempre ha sido posible identificar el momento y a sus protagonistas, todas las fotos elegidas para la exposición comparten una mirada «moderna», en la que la fotografía muestra su independencia como medio de narración y expresión. En algunas fotos, hay enlaces asombrosos de nuestros fotógrafos locales con fotógrafos «modernos» del siglo XX, como si compartieran una misma forma de mirar, algo a lo que contribuyeron, sin duda, las publicaciones especializadas y los magazines. En otras, se trata de ejercicios de reporterismo gráfico, como ocurre con las fotos de Galle o Zaragüeta, que trabajaron como fotógrafos para el *Diario de Navarra* y *La Voz de Navarra*, respectivamente. En ellas, hemos buscado que coincidan lo expresivo y lo informativo de tal manera que la imagen, además de informar sobre un acontecimiento, contenga una fuerza estética capaz de transformarla y trascenderla.

### Luis Garbayo Erviti

Comisario de la exposición / Erakusketako komisarioa

Nahiz eta beti ez den posible izan unea eta haren protagonistak identifikatzea, erakusketarako hautatu argazki guztiek dute begirada «moderno»a, zeinaren bidez argazkiak erakusten baitu kontabide eta adierazpide burujabea dela. Argazki batzuetan, lotura harrigarriak agertzen dira gure herriko argazkilarien eta XX. mendeko argazkilari garrantzitsuen artean, begiratze modu bera balute bezala; argitalpen espezializatuek eta magazinek horretan lagundu zuten, inondik ere. Beste batzuetan, berriz, erreportajegintza grafikoko ariketak dira, Galleren edo Zaragüetaren argazkiak, esaterako, egunkaritarako argazkilari lanetan aritutakoak biak *Diario de Navarra* eta *La Voz de Navarra*, hurrenez hurren. Argazkiotan, zera bilatu dugu, alde adierazkorra eta alde informatiboa bat etor daitezen, halako moldez non irudiak, gertaera bati buruzko informazioa emateaz gain, indar estetiko nahikoa izan dezan hura eraldatu eta gainditzeko.







**Una boda rural**  
**Herri txiki bateko ezkontza**  
 Gerardo Zaragüeta, 1930

26 de octubre de 1930. En Aibar, la boda entre la aibaresa Carmen Ruiz Oyaga, de 23 años, y el leonés José María Izquierdo Gutiérrez, de 27, es vivida por los vecinos como un acontecimiento. Niños y adultos se agolpan para ver a los novios. Tules, trajes de etiqueta y sombreros de copa y dos sobrinas de la novia, apenas entrevistas, que sostienen la cola del vestido. Una alfombra extendida entre la capilla de San Joaquín y la casa de la novia, pone a salvo los relucientes zapatos de los novios. Ha oficiado la ceremonia José Oyaga, tío de la novia, conservador del monasterio de Leire, que firma también como testigo. Por parte del novio firma el abogado pamplonés Enrique Astiz Aranguren, que será asesinado en el verano de 1936 (en Undiano o Ibero). Un hermano de la novia, Julio Ruiz Oyaga, nacionalista vasco, huirá a Francia en 1938, refugiándose en el convento de Belloc junto a otros correligionarios y religiosos, entre ellos José Miguel de Barandiaran.

1930eko urriaren 26a. Oibarko ezkontza: bertako Carmen Ruiz Oyaga, 23 urtekoa, eta Leóngo José María Izquierdo Gutiérrez, 27 urtekoa, ezkontzen dira. Gertakari handia da herrian. Umeak eta helduak elkarren gainean metatzen dira ezkongaiak ikusteko. Tulak, etiketa-jantziak eta kapela luzeak, eta bi neskatila ozta-ozta ikusgai, emaztegiaren soinekoaren dandarrari helduz. Alfombra bat hedatu dute emaztegiaren etxetik San Joakim kaperara; hari esker ezkongaien zapata distiratsuak ez dira batere zikinduko. Emaztegiaren osaba José Oyagak —Leireko monasterioko kontserbatzailea— gidatu du elizkizuna, baita lekuko gisa sinatu ere. Senargaiaren aldetik, Iruñeko abokatu batek sinatu du, Enrique Astiz Aranguren; abokatu hori 1936ko udan hilko zuten (Undion edo Iberon). Emaztegiaren anaia bat, Julio Ruiz Oyaga abertzalea, Frantziara joan zen ihesi 1938an, eta Belloc-eko komentuan errefuxiatu, beste zenbait irizkide eta elizgizonekin batera (horien artean, Joxe Migel Barandiaran).



### Tazio Nuvolari

Pedro María Irurzun, 1935

22 de septiembre de 1935. En la película de Marco Ferreri, *El cochecito* (1960), uno de los amigos del personaje que interpreta Pepe Isbert exclama cuando le ve llegar a este con su flamante cochecito: «¡Ahí viene Nuvolari!». Tazio Nuvolari (1892–1953) fue una figura legendaria del automovilismo de los años 20 y 30 del siglo XX y su figura, enfrentada a la de otro piloto legendario, Alberto Ascari, siguió viva durante, al menos, aquella generación. Esta serie de fotografías está tomada en el Gran Premio de España (XIª edición del Circuito automovilista de Lasarte), que gana el piloto alemán Rudolf Caracciola, con Mercedes. Nuvolari, que corre con Alfa-Romeo y carrocería Ferrari, y el navarro Genaro Leoz, con Bugatti, se retiran a mitad de la prueba. El circuito atraviesa Andoáin, Urnieta y Hernani, además de la propia Lasarte-Oria, donde están situadas la meta, la tribuna principal y los boxes. Es la última carrera del circuito; la guerra civil lo clausurará para siempre.

1935eko irailaren 22a. Marco Ferreriren *El cochecito* filmean (1960), Pepe Isbertek jokatzeko duen pertsonaiaren lagun batek honela esaten du hura autotxo dotorean datorrela ikustean: «Hortxe dator Nuvolari». Tazio Nuvolari (1892–1953) pilotu txiki ospetsua izan zen XX. mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetakoa automobilismoan, eta haren ospeak, Alberto Ascari pilotu era berean ospetsuaren kontrakarrean, bizirik iraun zuen belaunaldi hartara arte, behinik behin. Argazki-sail hau egin zen Espainiako Sari Nagusia zela eta (Lasarteko auto-zirkuituaren XI. edizioa); Rudolf Caracciola pilotu alemanak irabazi zuen, Mercedesekin. Nuvolarik Alfa-Romeorekin eta Ferrari karrozeriarekin parte hartu zuen, eta Genaro Leoz nafarrak, Bugattirekin; biek saioaren erdian utzi zuten lasterketa. Zirkuituak, Lasarte-Oria gain, Andoain, Urnieta eta Hernani zeharkatzen zituen, eta Lasarte-Oria zeuden helmuga, tribuna nagusia eta boxak. Zirkuituko azken lasterketa izan zen, gerra zibilak betiko itxi baitzuen.





**Dos periódicos, una calle**  
**Bi egunkari, kale bat**  
 José Galle, 1931

12 de abril de 1931. Se celebra la jornada electoral que abrirá las puertas a la Segunda República. La sede del *Diario de Navarra*, en la calle Zapatería 49, es asaltada. El propio periódico explica en primera página: «No fueron republicanos, no fueron socialistas los asaltantes»; y acusa de la agresión a los nacionalistas. No ofrece pruebas de que fuera así. El periódico nacionalista, *La Voz de Navarra*, que tiene su sede a pocos metros, en el número 50 de la misma calle, explica por el contrario que «Quince días llevaban calificando [el *Diario de Navarra*] de criminales, rojos, sinvergüenzas, etcétera, etcétera, a todos los republicanos (sin excepción) (...) ¿podemos extrañarnos de que los injuriados durante tantos días impunemente se manifestaran del modo en que puede manifestarse el pueblo?» Bajo el título «Hacia la República», el director del *Diario*, Raimundo García, «Ameztiá», describe así la histórica jornada: «Lo único que cabe es reconocer y proclamar el hecho indiscutible del triunfo sorprendente y abrumador de la candidatura revolucionaria en casi todas las capitales de España». Pamplona, donde la «coalición antirrevolucionaria» ganó por un estrecho margen, fue una de esas excepciones.

1931ko apirilaren 12a. Hauteskunde-eguna zen; bozketaren ondorioz, Bigarren Errepublikaren etorriko zen. *Diario de Navarra* egunkariaren egoitzari eraso zioten, Zapatería kaleko 49an. Egunkariak berak honela azaldu zuen lehen orrialdean: «Erasotzaileak ez ziren errepublikanoak izan, ez ziren sozialistak izan»; eta erasoaren abertzaleei leporatu zien. Ez zuen, ordea, horren inolako frogarik eman. Aitzitik, *La Voz de Navarra* egunkari abertzaleak (zeinak egoitza txit hurbil baitzuen, kale bereko 50ean) bestela azaldu zuen: «Hamabost egun zeramatzen [*Diario de Navarra*] errepublikazale guztiei (salbuespenik gabe) hiltzaile, gorri, lotsagabe eta abar, eta abar esaten [...] harrigarria al da, bada, hainbeste egunetan irainduak izan diren haiek egitea herriak halakoetan egin ohi duena?» «Errepublikarantz» izenburupean, *Diario*ko zuzendari Raimundo García, «Ameztiá»k, hurrengo asteartean honela deskribatuko zuen egun historiko hura: «Hauxe besterik ez dago: Espainiako hiriburu gehienetan hautagaitza iraultzaileak izan duen garaipen harrigarri eta izugarria aitortu eta aldarrikatzea». Iruñea izan zen salbuespenetako bat, koalizio kontrairaultzaileak ozta-ozta irabazi zuen arren.



**El voto de la mujer**  
**Emakumearen botoa**  
 Gerardo Zaragüeta, 1933

19 de noviembre de 1933. En la cuesta del Palacio, ante la fachada de la antigua Maternidad e Inclusa de Navarra —ubicada en lo que hoy es la calle Aldapa, que se abrió en 1944—, hombres y mujeres hacen cola a primera hora de la mañana para depositar su voto. Es la primera vez que votan las mujeres en España, gracias al empeño de la diputada radical Clara Campoamor. Ganará en Navarra el Bloque de Derechas, que alcanzará el «copo», es decir, los siete representantes por Navarra en las Cortes. El candidato más votado es el carlista Tomás Domínguez, conde de Rodezno. La segunda candidatura más votada será, a mucha distancia, la socialista, encabezada por Julia Álvarez; y la tercera, la nacionalista, liderada por Manuel de Irujo y José Antonio Aguirre. En ese mismo edificio, instalará su sede Falange Española en 1936.

1933ko azaroaren 19a. Jauregiko aldapan, Nafarroako Amaetxe eta Inklusa zaharreko fatxadaren aurrean —Aldapa kalea da orain, 1944an ireki baitzen—, gizon-emakumeak ilaran daude goizean goiz, botoa emateko zain. Lehenbiziko aldía da Espainiako emakumeek bozkatzten dutena, Clara Campoamor diputatu erradikalaren ahaleginari esker. Nafarroan Eskuineko Blokeak irabaziko du; gainera, «kopoa» eskuratuta, hots, Nafarroak Gorteetan dauzkan zazpi ordezkariak. Tomás Domínguez hautagai karlistak jasoko ditu boto gehien, Rodeznoko kondeak. Bozketan, hautagaitza sozialista geratuko da bigarren, Julia Álvarez zerrendaburu dela; eta hirugarren, abertzaleena, Manuel Irujo eta Jose Antonio Agirre buru direla. Eraikin horretan bertan jarriko du Falange Españolak bere egoitza 1936an.





**Ancianos de navarra**  
**Nafarroako adindunak**  
 Gerardo Zaragüeta, 1934

29 de junio de 1934. Estas «fotos robadas» las toma Zaragüeta en la puerta del recién estrenado edificio de la Caja de Ahorros de Navarra —en el chaflán de Carlos III y la calle Cortes de Navarra, hoy sede de la Hacienda Foral— con motivo de la celebración de la fiesta anual de Homenaje a la Vejez, que se celebraba el día de San Pedro. Son dos de los veinte ancianos homenajeados —cuatro por cada partido judicial—, en representación de los ancianos de Navarra. 719 de ellos, en situación de «pobreza absoluta», cobran en 1933 una pensión de una peseta o dos pesetas diarias ofrecida por la Diputación, la Caja, los ayuntamientos y otras empresas y entidades.

1934ko ekainaren 29a. Zaragüetak «argazki lapurtu» hauek hartu zituen Nafarroako Aurrezki Kutxaren eraikin estreinatatu berriaren atean —Karlos III. aren eta Nafarroako Gorteen kalearen arteko kantoi ebakian, gaur egun Foru Ogasunaren egoitza den horretan—; Zahartzaroaren Omenaldian eginak dira, urtero San Pedro egunez ospatzen zen festa hartan. Hogei adindun omentzen ziren —barruti judicial bakoitzeko lau—, Nafarroako adinekoen izenean omendu ere. Haietako bi ageri dira argazkian. 719 adindun «erabateko pobrezian» bizi ziren eta 1933an bat edo bi pezetako pentsioa kobratzen zuten eguneko, Diputazioak, Kutxak, udalek eta beste enpresa eta entitate batzuek emanda.



### Años de violencia Indarkeria-urteak

Gerardo Zaragüeta, 1934

17 de abril de 1934. Ecequiel Lorca Aquerreta, contratista de las obras del Seminario, Escolapios y las colonias de Hondarribia, estrecho colaborador del arquitecto Víctor Eusa, y Andrés Oricain Garrido, su contable, son asesinados por Luis Martínez de Ubago Arambarri, carpintero afiliado a la UGT que había sido despedido meses antes de la empresa. Las muertes, producidas por sendos disparos de pistola, provocan una gran conmoción en la ciudad y, entre otras reacciones, un intento de asalto a la Casa del Pueblo, que evitan los guardias de asalto. El asesino, que tras hacer los disparos se entrega en la inspección, lleva en su cartera un retrato de Saturnino Bandrés, militante socialista asesinado justo dos años antes, el 19 de abril de 1932, junto a otro socialista y a un tradicionalista, por disparos de un carlista en la plaza del Castillo.

1934ko apirilaren 17a. Ecequiel Lorca Aquerreta —Apaiztegiko, Eskolapioen eraikineko eta Hondarribiko kolonietako obren kontratista—, Víctor Eusa arkitektoaren lankide estua izan zena, eta haren kontulari Andrés Oricain Garrido, Luis Martínez de Ubago Arambarri, UGTko arotz afiliatuak, hil zituen. Langile hori enpresatik bota zuten hainbat hilabete lehenago. Bi hildakoek pistola-tiro bana jaso zuten. Hilketak zirrara handia eragin zuen hirian, eta hainbat erreakzio izan ziren; esate baterako, batzuk Herriaren Etxea hartzera joan ziren oldarrean eta eraso-guardiak geldiarazi zituen. Tiroak bota eta gero, hiltzailea inspektoria joan zen atxilotu zezaten. Diru-zorroan, Saturnino Bandrés militante sozialistaren erretratua zeukan, zeina justu bi urte lehenago hil baitzuen karlista batek, 1932ko apirilaren 19an, Gazteluko plazan (atentatu horretan beste sozialista bat eta tradizionalista bat ere hil ziren).





### Los vencedores

#### Irabazleak

Gerardo Zaragüeta, 1936

1936. Mitin del Bloque de Derechas o Frente Antirrevolucionario, que integra a carlistas, derechistas de Unión Navarra (integrada en la CEDA) y monárquicos, en la campaña para las elecciones de febrero de 1936. José Esteban Uranga, se dirige al público en el Euskal-Jai. Detrás, sentados, entre otros, Tomás Domínguez (conde de Rodezno), Rafael Aizpún (exministro de Justicia), Miguel Gortari, Javier Martínez de Morentin, Luis Arellano, Hilario Yaben (sacerdote), Jesús Elizalde y Juan Pedro Arraiza (vicepresidente de la Diputación). En la otra foto, el conde de Rodezno aparece sentado en la tribuna de oradores en un mitin de la misma campaña electoral. Tomás Domínguez figura como «decano» de la lista del Bloque de Derechas, candidatura que conseguirá todos los diputados por Navarra. A su lado en la foto, Joaquín de Borja, exvicepresidente de la Diputación, y Joaquín Beunza, que será fusilado el 4 de septiembre de ese mismo año en Hondarribia.

1936. Eskuineko Blokearen edo Fronte Kontrairaultzailearen mitina, 1936ko otsaileko hauteskundeetarako kanpaina. Bloke hartan karlistak, Unión Navarrako eskuindarrak (CEDAn sartuak) eta monarkikoak batu ziren. José Esteban Uranga, entzuleei hitz egiten Euskal-Jain. Atzean, eserita, Tomás Domínguez (Rodeznoko kondea), Rafael Aizpún (Justiziako ministro ohia), Miguel Gortari, Javier Martínez de Morentin, Luis Arellano, Hilario Yaben (apaiza), Jesús Elizalde eta Juan Pedro Arraiza (Diputazioko lehendakariordea), beste batzuen artean. Beste argazkian, Rodeznoko kondea ageri da hizlarien tribunan eserita, hauteskunde-kanpaina bereko beste mitin batean. Tomás Domínguez «decano» gisa azaltzen zen Eskuineko Blokeko zerrendan; hautagaitza horrek lortuko zituen Nafarroari zegozkion diputatu guztiak. Argazkian, haren ondoan, Joaquín de Borja dago, Diputazioko lehendakariorde ohia, bai eta Joaquín Beunza ere: urte hartantxe fusilatuko zuten, Hondarribian, irailaren 4an.





## El complot

### Konplota

Gerardo Zaragüeta, 1936

9 de mayo de 1936. Emilio Mola, general de brigada, es nombrado gobernador militar de Navarra el 28 de febrero de 1936. Si antes de las elecciones de febrero de ese año ya existía un ambiente conspirativo en los cuarteles de Pamplona y Estella, la llegada de Mola actuará de catalizador y aglutinador de aquellas aspiraciones. El 14 de abril, Mola escribe a su superior jerárquico, que «hiciese presente al Gobierno que, para que la oficialidad del Ejército se mantuviese en la más estricta disciplina, convendría poner coto a las provocaciones de que eran objeto constantemente bajo la mirada benévola de las autoridades del Frente Popular». El Gobierno envía al general Juan García Gómez-Camínero a Pamplona para tomar el pulso a la guarnición de Pamplona. Esta foto está hecha durante esa visita. Sentado en el centro de la mesa, el general Juan García Gómez-Camínero; a su derecha, Mola, y a su izquierda, el coronel José Solchaga Zala. A la derecha de Mola, su ayudante el teniente coronel Pompeyo Galindo Lladó. De pie, a la derecha, el teniente coronel Francisco García Escámez y el comandante Manuel Orbe Morales. Todos ellos se sublevarán contra la República el 19 de julio. El general, aficionado a la fotografía, morirá un año después, el 3 de junio de 1937, con su cámara Contax al cuello, al estrellarse su avión en Alcocero (Burgos).

1936ko maiatzaren 9a. Emilio Mola, brigadako jenerala, Nafarroako gobernadore zibil izendatu zuten 1936ko otsailaren 28an. Urte horretako otsaileko hauteskundeak baino lehen, bazegoen jada konspirazio-giroa Iruñeko eta Lizarrako kuarteletan, eta Molaren etorrerak asmo haiek bultzatu eta batu egin zituen. Apirilaren 14an, Molak hierarkikoki gainean zuenari idatzi zion «Gobernuari esateko ezen, armadako ofizialek diziplinarik zorrotzenez iraun zezaten, komeni zela eragozte behin eta berriz jasaten zituzten probokazioak, zeinak Fronte Popularreko agintariek begi onez ikusten baitzituzten». Gobernuak orduan Juan García Gómez-Camínero jenerala igorri zuen Iruñera, bertako soldadu-taldearen egoeraz jabetzera. Bisitaldi horretan egin da argazki hau. Mahai erdian eserita dagoena Juan García Gómez-Camínero jenerala da; haren eskuinekoa, Mola, eta ezkerrekoa, José Solchaga Zala. Molaren eskuinekoa, haren laguntzaile Pompeyo Galindo Lladó teniente koronela. Zutik, eskuinean, Francisco García Escámez teniente koronela eta Manuel Orbe Morales komandantea daude. Horiek guztiak Errepublikaren aurka altxatuko ziren uztailearen 19an. Jenerala, argazkiak atera zalea, urtebete geroago hilko zen, 1937ko ekainaren 3an, Contax kamera lepoan zuela, bere hegazkina Alcoceron (Burgosen) erori zenean.



**El juego de la guerra**  
**Gerraren jokoa**  
 Gerardo Zaragüeta, 1936

20 de julio de 1936. Con fusiles de madera, los niños emulan a sus padres. Pero los niños no odian. Ajenos a la crueldad y a la injusticia de la guerra, la viven como un juego. Esta foto es casi un género: Martín Santos Yubero, Robert Capa o Kati Horna fotografiaron en la guerra de España a niños vestidos de soldados. La foto del niño está tomada en los cuarteles del regimiento de infantería América de Pamplona. En la otra foto, falangistas posan junto al mismo niño, como si se tratara de una fiesta. Aquella «fiesta» durará treinta y dos meses y dejará casi 8.000 navarros muertos, de uno y otro bando.

1936ko uztailaren 20a Zurezko fusilekin, umek beren aitak antzeratzen dituzte. Baina haurrek ez dute gorrotorik. Ez dute gerraren ankerkeriaren eta bidegabekeriaren berri, haiendako jolasa da. Argazki molde hau ia genero bat da: Martín Santos Yubero-k, Robert Capa-k edo Kati Horna-k soldaduz jantzitako umeei argazkiak atera zizkieten Espainiako gerran. Haurren argazkia Iruñeko America infanteriako erregimentuko kuarteletan aterata dago. Beste argazkian, falangistak daude haur beraren ondoan, festa bat balitz bezala. «Festa» hark hogeita hamabi hilabete iraunen zuen, eta ia 8.000 nafar hilko ziren, alde batekoak eta bestekoak.







### La broma

#### Txantxa

Nicolás Ardanaz, 1936

1936–1939. Nicolás Ardanaz es un fotógrafo soldado. Dibujante, diseñador de las pancartas del Muthiko Alaiak, la peña carlista fundada por Ignacio Baleztena, o de portadas de libros de su correligionario Jaime del Burgo, ha recibido clases de Javier Ciga y esa formación influye en su visión pictoralista de la fotografía. Pero esta fotografía es una excepción. Fotografiar la broma es algo habitual: el fotógrafo no la busca, pero los fotografiados improvisan la broma para rebajar la tensión del momento. Pero cuando la broma compone la foto, acentuando el carácter de la composición, entonces se produce el pequeño milagro de una buena foto. En la guerra, «Nik» perderá a su hermano Antonio, que sale con él de Pamplona, camino de Somosierra, el 19 de julio en la columna de García–Escámez, en la creencia de que aquello va a ser «cosa de cuatro días».

1936–1939. Nicolás Ardanaz argazkilari soldadua da. Baita marrazkilaria ere; berak diseinatu ditu Muthiko Alaiak taldearen pankartak (Ignacio Baleztenak sortutako peña karlista), baita Jaime del Burgo irizkideak idatzitako liburuen azalak ere; Javier Cigaren klaseak jaso ditu, eta prestakuntza horrek argazkigintzaren ikuspuntu piktoriko bat eman dio. Baina argazki hau salbuespena da. Txantxa baten argazkia egitea ez da ohikoa: argazkilaria ez dabil horren bila, baina argazkian ageri direnek txantxa bat inprobisatzen dute, une horretako urduritasuna arindu nahirik. Txantxak, ordea, argazkia eratzen du, konposizioa indartuz, eta orduan mirari txikia gertatzen da: horra argazki bikain bat! Gerran, «Nik»ek bere anaia Antonio galdu zuen; elkarrekin atera ziren biak Iruñetik, Somosierra aldera, uztailaren 19an, García–Escámezen zutabeen orduan, “lau eguneko kontua” izanzen zela uste zuten denek.



«Cuando me siento observado por el objetivo, todo cambia: me constituyo en el acto de posar, me fabrico instantáneamente otro cuerpo, me transformo por adelantado en imagen.

Objektiboa begira daukadala sumatzen dudanean, dena aldatzen da: posatzeko ekintza bihurtzen naiz, istantean beste gorputz bat fabrikatzen diot neure buruari, irudi bilakatzen naiz aldez aurretik.»

Roland Barthes



### Manuel Arce

#### Obispo / Apezpikua

Gerardo Zaragüeta, 1929

16 de junio de 1929. En un caluroso domingo, Manuel Arce Ochotorena (Ororbia, 1879 — Tarragona 1948) es ordenado obispo en la catedral de Pamplona. En la ceremonia, presidida por el nuncio monseñor Tedeschini, el padrino, Joaquín de Borja, vicepresidente de la Diputación Foral, coloca al nuevo obispo la cruz pectoral —la que lleva en la fotografía—, regalo de la Diputación. Una vez despojado de los ornamentos episcopales, el nuevo obispo volverá a la Catedral en cuyo presbiterio y por espacio de hora y media dará a besar su anillo pastoral a las autoridades, a las comisiones y al público en general. Zaragüeta le fotografía en esas dos ocasiones y en el salón del Trono del palacio de Navarra, escenario de la foto protocolaria previa al banquete de autoridades religiosas, civiles y militares, que se servirá en el salón Príncipe de Viana del palacio. Años más tarde, en *Consideraciones sobre la guerra* (1937) Arce calificará el golpe militar de 1936 como «acto de legítima defensa». Será obispo de Zamora, Oviedo y arzobispo de Tarragona, donde ocupará la vacante de Vidal i Barraquer, muerto en exilio en 1943; en 1946 será nombrado cardenal por el papa Pío XII.

1929ko ekainaren 16a. Igande eguzkitsu batean, Manuel Arce Ochotorena (Ororbia 1879 — Tarragona 1948) apezpiku ordenatu zuten, Iruñeko katedralean. Zeremonian aitabitxiak, Foru Diputazioko lehendakariorde Joaquín de Borjak, apezpiku berriari bulargurutzea paratu zion —argazkian daramana—, Foru Diputazioaren opari. Apezpiku—apaingarriak kendu ondoren, apezpiku berria katedralera itzuli zen, eta han, presbiterioan eta ordu eta erdiz, eraztun pastoralak eskaini zien agintariei, batzordeei eta jende orori, musu eman ziezaioten. Zaragüetak bi momentu horietan egin zion argazkia, bai eta Nafarroako Jauregiko tronuaren aretoan ere, non egin baitzen protokolo—argazkia agintari erlijioso, zibil eta militarren oturuntzaren aurretik. Otordu hori Vianako Printzearen aretoan izan zen, jauregian. Zenbait urte geroago, Arcek idatziko zuen 1936ko kolpe militarra «bidezko defentsan egin» zela (*Consideraciones sobre la guerra*, 1937). Zamorako eta Oviedoko apezpikua izan zen; Tarragonako artzapezpikua ere bai, Vidal i Barraquer—en plaza hutsa betez (hori erbestean hil baitzen, 1943an); 1946an Pío XII.a aita santuak kardinal izendatu zuen.



**En la azotea**  
**Teilatu-lauan**  
 Julio Altadill, 1921

Las fotos tomadas en las azoteas son todo un subgénero fotográfico. Cuántas veces no se escuchó a los fotógrafos aficionados decir: «Subamos a la azotea, que allí hay más luz». Altadill fotografía en la azotea de su casa de la calle Calceteros, primero, y de Carlos III, después, a sus familiares, amigos y sirvientes, utilizando muchas veces fondos de telas neutras o con distintos motivos. A estas niñas, sin embargo, las fotografió sin artificio, en una ambientación descarnada, lo que dota a la fotografía de una sorprendente modernidad.

Teilatu-lauetan ateratako argazkiek azpigenero bat eratzen dute. Aldi frankotan entzun diegu argazkigile zaletuei: «Igo gaitezen teilatu-laura, han argi gehiago dago eta». Altadillek teilatu-lauan ateratzen dizkie argazkiak (lehenik, Calceteros kaleko etxean, eta gero, Karlos III.eko) ahaideei, adiskideei eta zerbitzariei. Maiz oihal soilak edo irudidunak erabilita, hondo gisa. Neskatila hauei, hala ere, inolako artifiziorik gabe atera die argazkia, giro gordin batean, eta horrek modernotasun harrigarria ematen dio irudiari.





### Adolescente

#### Nerabea

Julio Altadill, década de 1920

Aparte de las fotografías del patrimonio artístico navarro, Altadill hizo cientos de fotos a sus parientes, amigos y sirvientes. En sus fotos también encontramos a personajes desconocidos, que nos ha resultado imposible identificar. Como este adolescente al que el fotógrafo detiene en pleno paseo, en plena transición desde la edad de la inocencia a la edad adulta.

Nafarroako ondare artistikoaren argazkiez gain, milaka argazki egin zizkien Altadillek ahaide, adiskide eta zerbitzariei. Haren argazkietan, pertsonaia ezezagunak ere ageri dira, inola ere identifikatu ezin ditugunak. Nerabe hau, adibidez. Badirudi argazkilariak paseoaren erdian geldiarazi duela, xalotasunaren arotik helduarora doan garaian, hain justu.



### Dos amigas

#### Bi lagun

Gerardo Zaragüeta, década de 1930

Los fotógrafos «minuteros» se ubican en plazas, parques y paseos, donde ofrecen sus servicios de «foto al minuto» con su cámara de cajón sostenida en un trípode. Zaragüeta ocupa un estatus profesional superior, pero esta foto bien podría haber sido hecha por uno de esos minutereros.

Argazkilari «minuteroak» plaza, parke eta pasealekuetan egoten ziren lanean, «minutu baten buruko argazkiak» ateratzen, hiruoin baten gaineko kaxoi-kameraren bidez. Zaragüetak lanbide-maila garaiagoa zuen, baina argazki hau minutero haietako batek egindakoa izan zitekeen.





**El taller Guillermo Trúniger S. A. tailerra**  
Gerardo Zaragüeta, 1935

En el número 31 de la plaza del Castillo —o de la Constitución, o de la República, dependiendo del año y del régimen—, en el primer piso, justo encima del estudio fotográfico de Zaragüeta, tiene su sede la sucursal en Pamplona de Guillermo Trúniger S. A., concesionario exclusivo en España de Underwood, la marca neoyorquina de máquinas de escribir. Su sede central está en Barcelona y tiene sucursales en las principales ciudades españolas. La de Pamplona la regenta en 1935 M. Senosiain.

Gazteluko plazan —edo Konstituziokoan, edo Errepublikakoan, urtearen eta erregimenaren arabera—, 31 zenbakiko lehen solairuan, Zaragüetaren argazki-estudioaren gainean hain zuzen, Guillermo Trúniger S. A.aren Iruñeko sukurtsala zegoen: sozietate huraz zen New Yorkeko Underwood idazmakinen markaren kontzesiodun bakarra Espainian. Egoitza nagusia Bartzelonan zuen eta sukurtsalak zituen Espainiako hiri nagusietan. Iruñekoan M. Senosiainek ziharduen arduradun 1935ean.



**Julio Altadill Torrenteras de Sancho**  
Toledo, 1858 — Pamplona/Iruñea, 1935

Fotógrafo no profesional. Militar, historiador (*Memorias de Sarasate, Datos para la historia del arte en Navarra*), geógrafo (*Geografía general del reino de Navarra, Geografía histórica de Navarra*) y empresario. Como miembro de la Comisión de Monumentos Históricos y Artísticos de Navarra documentó fotográficamente el arte navarro. Su otro objetivo fotográfico fue su familia, a la que retrató a lo largo de toda su vida.

Argazkilari ez-profesionala. Militarra, historialaria (*Sarasateren memoriak, Nafarroako artearen historiarako datuak*), geografoa (*Nafarroako Erresumaren geografia orokorra, Nafarroako geografia historikoa*) eta enpresaria. Nafarroako Monumentu Historiko eta Artistikoen Batzordeko kide gisa, Nafarroako artea argazkigintzan dokumentatu zuen. Bere beste helburu fotografikoa bere familia izan zen, bere bizitza osoan zehar erretratatu zuena.



AUTORRETRATO / AUTORETRATU (ARCHIVO GENERAL DE NAVARRA / NAFARROAKO ARTXIBO OROKORRA)

**Nicolás Ardanaz Piqué**  
Pamplona/Iruñea, 1910 — 1982

Fotógrafo no profesional. De formación pictórica, recibió clases del pintor Javier Ciga y diseñó varias portadas de libros de su correligionario Jaime del Burgo; en 1936 dibujó la pancarta de su Peña, Muthiko Alaiak. En la guerra civil hizo labores de reportero gráfico encuadrado en el requeté. Fue cofundador, en 1955, de la Agrupación Cinematográfica y Fotográfica de Navarra. Suyas fueron las fotografías y el diseño de los carteles de San Fermín de 1965 y 1966. Su obra se caracteriza por su amor a la naturaleza y al paisaje navarros y por un cierto casticismo en el tratamiento de los temas humanos.

Argazkilari ez-profesionala. Javier Ciga margolariaren eskolak jaso zituen, eta Jaime del Burgo erlijoiakidearen hainbat liburu-azal diseinatu zituen; 1936an Muthiko Alaiak lagun-taldeko pankarta marraztu zuen. Gerra zibilean erreketearen kokaturiko erreportari grafiko lanak egin zituen. 1955ean, Nafarroako Zinematografia eta Argazki Elkartearen sortzaileetako bat izan zen. Bereak izan ziren 1965 eta 1966ko San Ferminetako argazkiak eta kartelen diseinua. Nafarroako natura eta paisaiarekiko maitasunagatik eta giza gaien tratamenduan nolabaiteko zigorkeriagatik bereizten da bere lana.



AUTORRETRATO / AUTORETRATU (MUSEO DE NAVARRA / NAFARROAKO MUSEOA)

**José Galle Gallego**  
Valladolid, 1898 — Pamplona/Iruñea, 1983

Fotógrafo profesional. Aprendió el oficio en el estudio de Benito Rupérez antes de independizarse como fotorreportero en 1924. Fue colaborador de *Diario de Navarra* desde finales de la década de 1920 hasta mediados de 1960. Abrió estudio propio con su hermanastro Rafael Bozano Gallego, de quien se separaría comercialmente en 1949. Practicó casi todos los géneros fotográficos: retrato, paisaje urbano, publicidad, reportaje, etc. Su hijo Fernando Galle Zumealde (Pamplona 1928 — 1982) se incorporó al oficio en 1950.

Argazkilari profesionala. Benito Rupérez estudioan ikasi zuen ofizioa, 1924an argazki-erreportari gisa independizatu aurretik. *Diario de Navarra*ko kolaboratzailea izan zen 1920ko hamarkadaren amaieratik 1960ko hamarkadaren erdialdera arte. 1929an bere estudioa ireki zuen Rafael Bozano Gallego anaioordearekin eta 1949an komertzialki banandu zen. La argazki genero guztiak praktikatu zituen: erretratua, hiri paisaia, publizitatea, erreportajea, etab. Fernando Galle Zumealde (Iruñea, 1928 — 1982) semea 1950ean hasi zen lanean.



AUTORRETRATO / AUTORRETRATU (ARCHIVO GENERAL DE NAVARRA / NAFARROAKO ARTXIBO OROKORRA)  
JOSE GALLE (CENTRO/ERDIAN)

**Pedro María Irurzun Irurzun**  
Pamplona/Iruñea, 1902 — 1958

Fotógrafo no profesional. Su obra, que abarca las décadas de 1940 y 1950, se expuso en gran número de salones internacionales —Lisboa, Edimburgo, Filadelfia, Madrid, Bolonia, Amberes, Luxemburgo, Johannesburgo, Bruselas, Plymouth, etc.—, en los que obtuvo diversos premios. Su estilo, clásico, estuvo orientado hacia el retrato de estudio, género que practicó con maestría y perfección técnica. Realizó una importante colección de retratos de personajes ilustres de Navarra, así como composiciones y naturalezas muertas. También trabajó el reportaje. Estaba casado con la también fotógrafa, Lydia Anoz.

Argazkilari ez-profesionala. Bere lanak 1940ko eta 1950eko hamarkadak hartzen ditu, eta nazioarteko areto askotan erakutsi ziren (Lisboa, Edinburgo, Filadelfia, Madril, Bolonia, Anberes, Luxenburgo, Johannesburgo, Brusela, Plymouth, etab.), non hainbat sari jaso zituen. Bere estiloa, klasikoa, estudioko erretratua orientatua egon zen, maisuki eta perfekzio teknikoak praktikatu zuen generoa. Nafarroako pertsonaia ospetsuen erretratu bilduma garrantzitsua egin zuen, baita konposizioak eta natura hilak ere. Erreportajea ere landu zuen. Lydia Anoz argazkilariarekin ezkondu zegoen.



AUTORRETRATO / AUTORRETRATU (MUSEO DE NAVARRA / NAFARROAKO MUSEOA)

### Gerardo Zaragüeta Zabalo

Pamplona/Iruñea, 1896 — 1985

Fotógrafo profesional. Hijo del fotógrafo Agustín Zaragüeta Colmenares (Donostia-San Sebastián 1859 — Pamplona 1929), trabajó entre las décadas de 1920 y 1950. Combinó el trabajo en estudio con el reporterismo gráfico, que ejerció como colaborador del periódico nacionalista *La Voz de Navarra* y reportero gráfico del Club Atlético Osasuna. No hubo acontecimiento social, deportivo o político que escapara de su objetivo, de ahí el importante valor documental de su fondo fotográfico, conservado en el Museo de Navarra.

Argazkilari profesionala. Agustín Zaragüeta Colmenares (Donostia, 1859 - Iruñea, 1929) argazkilariaren semea zen. Estudioko lana eta erreportaritz grafikoa uztartu zituen, *La Voz de Navarra* egunkari nazionalistako kolaboratzaile gisa eta Osasuna futbol taldeako erreportari grafiko gisa. Bere helburutik ihes egiten zuen gizarte, kirol edo politikako gertaerarik ez zen izan, eta hortik datorkio Nafarroako Museoan gordetako argazki-funtsaren balio dokumental garrantzitsua.



AUTORRETRATO / AUTORETRATU (MUSEO DE NAVARRA / NAFARROAKO MUSEOA)

«Están ahí, mirádonos. Y nosotros, como dioses pequeños, conocemos su suerte.

Hor daude, guri begira. Eta guk, jainko txikiok, haien zoria badakigu.»

LGE

